




Gurean

berdintasuna



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
5. zbk. 2019 Martxoa



“Hezkuntzan hezkidetza prozesu kontzienteak eragin behar dira eta horiek bultzatzeko esku hartzea oinarrizkoa da. Aldaketa ez da ustekabeen helduko esku hartzerik gabe”



KIROLA ETA BERDINTASUNA, KONPONDU GABEKO ARAZOA

Kirola dibertimendu eta gozamenerako aukera emateaz gain pertsonak txikitatik ahalduzko tresna indartsua da. Emakumeek kirol desberdinetan parte hartu ahal izateko oztopo asko gainditu badituzte ere, jendartearen imajinario kolektiboan sexu bakoitzarentzako egokia denari buruzko ideiak diraute. Aurreiritzi hauek sarritan oharkabe igortzen dira eta edozein ingurunean inkontzienteki ikasten dira, bereziki eskolan

Kirolaren mundua tradizionalki gizonei zegokien esparrua izan da eta iraganean emakumeen parte hartzea mugatzen zuten aurreiritzi asko zeuden. Egoera honetan mutilen eta nesken sozializazio desberdina eta kirolari lotutako estereotipoak faktore garrantzitsuak izan dira.

Adibide argi bat #LikeAGirl (neska bat bezala) publizitate kanpainaren bideo birala izan da. Bideo honek kirol munduan emakumeekiko dauden aurreiritziak agerian uzten ditu eta hauek nesken autoestimua eratzeko prozesuan dituzten ondorioak. *“Pertsonak txikitatik ahalduzko tresna behar ditugu eta erakutsi gaitasunak ez direla sexuaren arabera izaten. Gizartearen gaitasunen arabera rolen banaketa bat birstortzen jarraitzen dugu. Nesken kasuan egon daitekeen egiazko ezgaitasuna eta sinistrazioaren artean alde handia dago”* salatu du Ainhoa Azurmendik, (UPV/EHU) Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta kirol aholkularia.

Honetaz gain emakumeek oztopo asko aurkitzen dituzte kirola egiteko orduan: genero ikuspunturik gabe sortutako azpiegiturak, astialdi gutxiago, emakumezkoen kirolaren profesionalizazio

eza eta laguntza falta, komunikabideetan ikusgarritasun urria eta abar. *“Kirola tresna ahaltsua da eta gizarte patriarkalari eusteko erabilia izan da. Emakume entrenatzaile, arbitro, tekniko, sendagile, zuzendari eta batez ere kirolarietara ematen zaien tratua baztertzailerik pentsaezina da beste esparru batzuetan. Bazterketa hau eskola adineko neskekin hasi eta eliteko kirolarienganaino heltzen da.”* adierazi du Matilde Fontecha elkarrizketa honetan. Matilde Fontecha filosofian doktorea eta UPV/EHU-ko Kirol Heziketako eta bere Didaktikako irakaslea da.

Emakume erreferenteak

Beste aldetik, emakumeek kirol gutxiago egiten dute, Eusko Jaurlaritzak egindako ‘Jarduera Fisikoa eta Kirola 2017’ ikerlanak erakutsi zuen moduan: *“kirol-jarduerari dagokienez emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen arrakala 13 puntutakoa da: gizonek %70ek eta emakumeek %57k egiten dute kirola”*.



Hurrengo urteetan arreta amengan eta amek jardueraren fisikoarekin duten harremanean jarri beharko genuke ere, amek konzienteki haien alabekin kirolaz gozatzea sustatu beharko genuke.

Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Sektorean Emakumeen eta Gizonek Berdintasuna Sustatzeko Planean agertzen den beste ikerketa batean azaltzen den moduan *“emakumeek gizonek baino gehiagotan uzten dute kirola, adibidez 16-18 eta 25-26 adin artean eta 50 urtetik aurrera ere, eta gizonek aldiz jardueraren fisikoa mantentzeko joera dute”*.

Neskek kirola egiten jarrai dezaten lagundu ahal duen faktore bat erreferenteak dira. *“Kontzienteki erreferente hurbilak sortu behar dira. Neskek beraiek proiektatzeko moduko entrenatzaileak izatea”*



funtsezkoa da eta senior taldeko jokalariek ere neskak jokatzen ikustera joan eta beraiei aholkuak ematea. Hurrengo urteetan arreta amengan eta amek jarduera fisikorekin duten harremanean jarri beharko genuke ere, amek konzienteki haien alabekin kirolaz gozatzea sustatu beharko genuke. Ez da nahikoa kirol jardueretan haien izena ematea, erreferente berriak sortu behar ditugu. Kirolaren gozamina partekatu behar da, neskak beraien garapenaren eragile aktiboak izan daitezzen.” adierazi du Azurmendik.

Beste aldetik, komunikabideek emakumezkoen kirola ez aipatzeko joera daukate edo modu ezegokian tratatzen dute eta honek ondorio negatiboak dauzka. “Neskek emakume kirolarien ereduak behar dituzte. Mutilekin baino ahalegin handiagoa egin behar dugu neskei erreferenteak eskeintzeko” azpimarratu du Azurmendik. Neskei informazioa falta zaie. Komunikabideetatik ez zaizkie erreferenterik heltzen, ez dute seguraski ezagutu Salma al Majidi Afrikako gizonzkoen futbol talde bateko lehenengo emakume entrenatzailea edo Bibiana Steinhaus Bundesligako partida batean epaile-lanak egin dituen lehenengo emakume arbitroa.

Hezkidetzaren prozesu kontzienteak

Hezkidetzaren ez da automatikoki eskuratzen den balore bat eta berdintasun araudi desberdinetan agertzen da, beraz heziketa helburuetan txertatu beharko litzateke.” *Heziketa sistemak hezkidetzaren bermatu beharko luke. Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetan helburu horretarako programak ezarri baditu ere, unibertsitatean erroka handia daukagu oraindik. Gaur egun unibertsitateek ez dute bermatzen unibertsitatek ateratzen diren irakasleen hezkidetzari buruzko ezagutza eta honek gorpil zoro bat sortzen du. Genero ikuspuntua oraindik irakasleen kontura geratzen den zerbait da. Berariazko lan bat egin behar da hezkidetzaren bermatzeko araututako hezkuntzan eta baita arautu gabekoan ere, adibidez entrenatzaileen kurtsoetan. Zeren eta entrenatzaileak urrunago baitaude oraindik genero ikuspuntua txertatzeko orduan, bai forman eta baita edukian ere.” esan du Azurmendik.*

“Hezkuntzan hezkidetzaren prozesu kontzienteak eragin behar dira eta horiek bultzatzeko esku hartzea oinarritzkoa da. Aldaketa ez da ustekabea helduko esku hartzerik gabe” azpimarratu du Azurmendik. Ikastetxeetan ematen den sexu estereotipoen igorpena zerbait elementuen menpe dago; adibidez irakasleen motibazio eta jokoerak, ikaslearen portaerak, erabilitako hizkuntza sexista, klaseen antolaketa, kirol materialaren kontrola eta monopolizazioa, atsenaldietan eta jarduera fisikoko klaseetan espazioaren erabilera eta abar. “Egiteko asko daukagu umeak eskolara sartzeko direnetik. Irakaslearen artean askotan komentatu dugu inkonzienteki neskak eta mutilak modu desberdinean hezitzen ditugula. Mutilei kirol esparruan neskei baino gehiago eskatu ahal

Hezkuntzan hezkidetzaren prozesu kontzienteak eragin behar dira eta horiek bultzatzeko esku hartzea oinarritzkoa da. Aldaketa ez da ustekabea helduko esku hartzerik gabe

diegunaren ikuspuntua barneratuta daukagu. Mutilei esan ahal diegu: “Aupa txapeldun, eutsi goiari, nekatuta egon arren jarraitu”. Neskei ordea zera esaten diegu: “Jezarri hor neska, ez da ezer gertatzen, deskantsatu”. Zeregin asko daukagula uste dut.” adierazi du Patri Espinarr pilotari eta Kirola eta Jarduera Fisikoen Zientzietako lizentziadunak.

“Aurrera pausu handiak eman ditugu eta une garrantzitsu batean gaude. Gaur egun inok ez litzuke emakumeen kirol gaitasunak ukatuko. Oztopo eta heziak gainditu dira pilotan, arraunean eta futbolean...Orain hain kontzienteak ez diren eta emakumeen kirol jarduera mugatu ahal duten prozesuetan ipini behar dugu arreta” amaitu du Azurmendik.

Interesgarria / De Interés

DOCUMENTAL



EL MACHISMO QUE NO SE VE

Documentos TV aborda el machismo cotidiano de la España de principios de siglo XXI de la mano de un taller de teatro para estudiantes de la universidad de Málaga y de la charla-taller en un instituto de secundaria en El Prat de Llobregat.

INFO+

LIBURUA



EMARIAK LIBURUA

Emakumeek Historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma da. 12 biografia osatu dira, eta diseinu eta ilustrazio propioekin lagundu da bakoitza. Aukeratutako emakume hauek euren bizitzan lorpen handiak egin badituzte ere, ixilarazi egin izan dira. Hori dela eta, euskarazko liburu hau sortu da emakume erreferenteak ikusarazteko eta denon eskura jartzeko zabaltzeko tresna.

LIBURUA



ARTURO eta CLEMENTINA

Adela Turin idazle eta ikerlari feministak sortu eta Nella Bosniak ilustraturiko protagonista eza-gunenak dira. Modu sinplean, haurrek berehala bereganatuko dute liburuan ageri den mezua; gogoeta gizon eta emakumeen arteko rol banaketaz, emakumeen askatasunaz eta norberaren garapen beharraz... eta hori dena, dortoka biren istorio, antza, sinple eta labur honetan.

Otsailak 22, Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako Eguna



Pasa den otsailaren 22an, Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako Eguna ospatu zela eta, Eusko Jaurlaritzak berretsi egin zuen lan-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekin hartu duen konpromisoa eta soldata-desberdintasunaren arazoari erantzun integral bat emateko egindako apustua.

Soldata-arrakala gizonen eta emakumeen arteko egitura-desberdintasunari lotutako ordainsari-arazoaren adierazpe-

na da. Arrakalak erreproduzitu eta irararazi egiten du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna gure gizartean, eta faktore askoren ondorioa da. Faktore horien artean, honako hauek azpimarra daitetzeke: sexuaren arabera lan-segregazioa eta emakumeek egindako lanaren balorazio sozial eta ekonomiko txikiagoa; emakumeek eta gizonek lan-merkatuan duten posizio desberdina (jenero-harremanek eta estereotipoek baldintzatutak); eta erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan.

CIENTIFICAS EN CIFRAS 2017

Científicas en Cifras 2017 es la quinta edición de una serie que inició la Unidad de Mujeres y Ciencia a nivel estatal con la publicación de Académicas en Cifras 2007, seguida por las sucesivas publicaciones de Científicas en Cifras en los años de referencia 2011, 2013 y 2015.

Esta publicación analiza la presencia relativa de mujeres en los distintos niveles y ámbitos de la ciencia en España, con especial atención a la carrera investigadora en universidades y Organismos Públicos de Investigación (OPIs), a la composición de órganos de gobierno y evaluación y a los resultados de la participación en convocatorias de financiación de la I+D+i.



Emakume eta nesken ahalduntzean eta genero mugarik gabe euren etorkizuna erabakitze eskubidea, Emakunderen martxoaren 8rako kanpainaren ardatzak



Emakunde aurtengo emakumearen nazioarteko egunerako –martxoak 8– diseinatutako kanpainak Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) 5. xedea aipatzen du: “Emakume eta nesken ahalduntzea eta genero berdintasuna”.

Lau neska gazte dira kanpainaren protagonistak, eta “Erabakitzen dudana izango naiz” lelopean gizarteari galdetzen diote prest dagoen beraien eskubideak modu aske batean aurrera eramateko aukera bermatzeko. Neskak Historian zehar erreferentziak izan diren emakumeen irudiekin batera

agertzen dira.

Kanpainaren aurkezpenean, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak azaldu duenez, “neska askok beraien ahalduntasunerako pausuak eman dituzte, prest daude, beraien eskubideetat jabetu egin dira eta jendarteak beraien eskakizunei erantzun behar die. Bidezkoa da beraien etorkizuna modu aske batean erabakitzea, genero rol eta estereotipoek aurretik zehaztutako biderik ezarri ez diezaieten”. Informazio gehiago: Emakunde aldizkaria eta ekitaldiaren bideoa.

BA AL ZENEKIEN?

HEZKIDETZA

M^a José Urruzolak, honela definitu zuen: «neska-mutilak genero femeninoa edo maskulinoa alde batera utzita hezten dituen, hots, sexu-desberdintasunetik abiatuta hezten dituen, beren banakotasunaren garapena bultzatuta, baina gizarte sexista batetik sexu batekoa edo bestekoa izateagatik betetzeko eskatzen zaizkien rola kontuan izan gabe»

Simonen (2000) eta Subiratsen (2010) arabera hezkidetza ez da eskola mistoaren sinonimotzat ulertu behar. Hezkuntza mistoa prestakuntza-espazio berean neskak eta mutilak txertatzen dituen aldi berean, batzuentzat zein besteentzat curriculum-eredu bera planteatzen duen hezkuntza ereduari dagokio. Espazio bera eta curriculum bera partekatzeak ez du esan nahi «berdintasun» eta «berdintasunerako» hezten denik.

PATRI ESPINAR

PILOTA JOKALARIA

Argazkiak: Iker Amarika

“Jende askok uste du emakume pilotariak profesionalak garela. Oker daude, ez da horrela. Ez dugu bizimodua hortik ateratzen.”

Patri Espinar pilotaria gaur egungo Emakume Master Cup-eko lau t'erdiko txapelduna da. Txileko 2005-eko Munduko Trinkete Txapelketa 22 azpiko argentinar paletaren modalitatean irabazi zuen eta Kolonbiako Eskupilotaren Munduko Txapelketan One Wall modalitatean banaka eta binakako txapelduna izan zen eta munduko txapelketaren jokalaririk onena. Bere kirol erdiespen eta garaipen zerrenda luzea izan arren, honek ez du inongo eraginik izan bere banku kontuaren osasunean. Kirol Zientzietan lizentziatua da, orientazio eta eskaladako monitore eta mendi ertaineko gidaria da. Orain dela urte t'erdia berak sortutako “Plaza Emakumeak Kirol Kluba” izeneko pilota eta mendi klubari ordu asko eskeintzen dizkio.

Orain dela urte t'erdia Plaza Emakumeak Kirol Kluba sortu zenuen. Zergaitik?

Emakumeak orain dela urte bat hasi ginen lehiaketetan parte hartzen modu federatua eta klub bat behar genuen elkarrekin, entrenatu eta lizentziak ateratzeko. Ni mendi gidaria naizenez ere alor biak elkartu nituen, pilota eta mendi kirola. Modu honetan proiektuak behar bezala antolatu eta arautu daitezke. Gaur egun 20 emakume gara.

Noiz erabaki zenuen pelotaria izatea?

Usansolon frontoi bat geneukan etxe ondoan eta 10 urterekin eskupilotan hasi

nintzen. Nire adineko mutikoekin lehiatzen nintzen. Maite ditudan kirolen artean eskupilota da egiteko errezena, Euskal Herriko herri bakoitzean pilotaleku bat baitauekagu.

Zer nolako oztopoak pairatu dituzue emakume pelotarietarako?

Ez gaituzte inoiz berdindu tratatu. Protagonismo guztia gizonen izan dute. Emakume Master Klubarekin konturatu gara txikitzen guztiei gauza bera esaten zigutela, ez zegoela nesken txapelketarik pilotan jokatzeko zuten neskarik ez zegoelako. Ez zen egia eta modu horretara ez zuten inongo eginahalik egin behar.

Hala ere, “Las pelotaris” dokumentalean ikus daitezkeen XX. mendearen erdira arte emakumeak, profesionalizatzeaz gain, Madrilen, Valentzian, Bilbon eta Miamin frontoiak betetzen zituzten...

Adibide honek frogatzen du emakumeek profesionalak izan ahal izateko behar dugun gauza bakarra norbaitek gure aldeko apostua egitea da. Garai hartan Ildefonso Anabitarte enpresariak emakumeen aldeko apostua egin zuen. Historiako lehenengo kirolari profesionalak izan arren ez zituen inork ezagutzen Ainhoa Palomok eta Jon Juanesek beraien berri eman duten arte.

Betidanik borrokatu duzue pilotaren munduan berdintasuna lortzeko. Zuen ustez zergaitik gertatzen ari dira gaur egungo aurrerapausoak?

Prentsan agertzen bagara, gutaz informazioa zabaldu eta komunikabideak erakartzen jakin izan duten Iker Amarika eta Jose Manuel Fuentesi esker izan da.

Urtetan aritu gara Emakume Pilotari egitasmoarekin lan egiten eta ez genuen palararekin oraingo ikusgaitasuna lortzen baina ezagunagoak gara orain eta gure lana pilotarekin jendearen esker ona irabazten ari da.

Uste duzue emakume pilotarietarako kirol honetatik bizimodua ateratzeko unea heldu dela?

Jende askok uste du emakume pilotariak profesionalak garela. Oker daude, ez da horrela. Ez dugu bizimodua horretatik ateratzen. Eskupilotaren Bizkaiko I. Txapelketa zela eta, prentsan lehenengo aldiz kontratu profesional bat izango genuela agertu zen.

Kontratu horren arabera gizar-te segurantzian alta hartu eta partidu bakoitzeko 71 euro kobratzeko aukera daukagu. Hau da, ondo dago kontratuarena eta eskertzen da baina gauzak diren bezala esan behar dira, kontratu horrek eguneko garraio gastuak ordaintzeko ematen du bakarrik.

Zure kirol ibilbidean zer sentitu duzu horrenbeste desberdintasunaren aurrean?

Ba, ahalegin bikoitza egiten dugun arren ez dugula inongo ordainsaririk jasotzen eta beti itzalean geratzen garela. Hori bai, kirol honekiko erromantizismoa gorde dugu. Ez gara gure kide gizon pilotariak bezain zorionekoak izan, eta argi dago gizonak izan bagina, profesionalak izango ginatekeela. Maite Ruiz de Larramendik eta Maider Mendizabalek adibidez, 13 eta 11 aldiz irabazi dituzte mundialak...

Gehiago entzuten diezu orain neskeei pilotariak izan nahi dutezela?

Bai. Larrabetzuko mutiko baten pasadizo on bat bada, berak neska izan nahi zuela zioen, orain emakume pilotariak erreferenteak omen garelako, eta horrela da Larrabetzun, bertan Euskadiko lehenengo emakume pilotarien elkarte osatu delako “Txokoan Emakume Pilotarien Elkarte”.

Etorkizunean emakume pilotariak profesionalak izango dira, izan ere hori lortzeko pertsona asko ari baikara lan egiten.

